

Urteroko hitzarmena sinatu dute AEK eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Bilbon

HABEk 635 milioi pezeta emango dizkio koordinakundeari heldu den ikasturtean

Erredakzioa / Bilbo

Datorren urteroko hitzarmena sinatu zuten atzo, Bilbon, AEK-ko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailako arduradunek. Bost urteko lankidetzaren barruan beste urrats bat izan zen atzokoa, eta, haren bidez, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak 635 milioi pezeta jasoko ditu euskaltegiatarako eta hiru milioi Aizu! aldizkariarako.

AEK-REN izenean, Joxe Leon Otaño, Iñaki Lasa, Erramun Osa eta Xabier Ugalde Hegoaldeko arduradunak izan ziren sinatze ekitaldian; Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren izenean, berriz, Josune Ariztondo Hizkuntz Politikarako sailburuordea eta Jokin Azkue HABEko zuzendaria.

AEK-k eta HABEk 1995ean sinatu zuten akordio esparrua, eta urtero-urtero berritu egiten dute hitzarmen bidez.

AEK-k eta HABEk helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko konpromisoa hartu zuten sinatutako akordioaren bidez, eta, bide horretan, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak aurreikusitako irizpideak elkarlanean garatuko dituzte, HABEk jakinarazi duenez.

AEK-k azaldu duenez, HABEk alor horretako neurrien proposamen sorta helduak gainerako euskaltegiei azaroaren 1erako,



XOUSA SIMAL

AEK eta HABEren hitzarmenaren bidez, AEKren 13 euskaltegi homologatuko dira aurtan, tartean Urtats Bilbokoa.

haiek abenduaren bukaerarako proposamenak egin ditzaten. Denen artean 2000. urte bukaerarako hitzartuko dituzte garatu beharreko ildoak.

Halaber, HABE eta AEKren artean batzorde tekniko bat osatuko da, teknologia berrien bidez HABE eta AEKren arteko komunikazioa hobetzeko. Ildo horretan, HABEk adierazi duenez, AEK HABEren Habenet sare informatikoan sartuko da. Bide-nabar, AEK-k asmoa dauka aurrerapauso gehiago egiteko teknologia berrien arloan. Hain zuzen ere, bost autoitaskuntza gela jarriko ditu

martxan lau euskaltegitan eta barnetegi batean.

AEKren 13 euskaltegi gehiago homologatuta

Hitzarmenean jasotzen denez, AEKren 13 euskaltegi jarriko dira aurtan homologazio bidean: Indautxu, Urtats, Lizardi, Matxintxu, Lautada, Mikoleta, Gurutzeta, Ondarrosa, Santurtzi, Antigua, Irun, Lezo eta Lasarte. Gaur egun Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban dauden euskaltegi homologatuen sarerik zabalena AEKrena da. Hain zuzen ere, 57 euskaltegi homologatuetatik 27 baitira

koordinakundearenak. 1998-1999ko ikasturtean 41.514 lagun aritu zen euskara ikasten Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko euskaltegitan, eta horietatik %36 AEKn ziren.

Bestalde, AEK-k datozen egunetan aurkeztuko du bere kurrikulua, eta onartu du ez duela «funtsezko ezberdintasunik» HABEk berriki aurkeztu duenarekin. Izan ere, Koordinakundearen arabera, HABEren kurrikulu horrek AEK-k historikoki planteatu izan dituen puntuak jasotzen dira: euskararen erabilera sustatzea eta komunikazioan oinarritzea irakaskuntza.

‘Solasean eta jolasean’ ikasmaterialak aurkeztu ditu HABEk, gurasoentzat eta umeei lanean aritzen diren helduentzat

Hizkuntza trebakuntza areagotzea eta belaunaldien arteko hizkuntz transmisioa sendotzea du helburu

Erredakzioa / Donostia

HELDUEN Alfabetatze Euskalduntze Erakundeak (HABE) Solasean eta jolasean ikasmaterialak aurkeztu zituen atzo Donostian. Aurkezpenean izan ziren Josune Ariztondo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuordea, Jokin Azkue HABEko zuzendaria nagusia, Xabier Elortza ikasmateriala prestatu duen taldeko koor-

dinatzailea eta Aurkene Mora Donostiako Zurriola ikastola-ko pedagogi burua.

Hiru liburukik eta bideozintak osatzen dute materiala, eta gurasoentzat eta umeei harremanetan edo lanean ari diren helduentzat dira: monitoreak, irakasleak, zain-tzaileak...

Aurkezpenean adierazi zutenenez, materialen helburua da, helduen euskara hobetzearekin batera, belaunaldien

artearen euskararen erabilera areagotzea, «kantitatez eta kalitatez». Ikasmaterialak euskaltegi eta guraso eskolatan erabiltzeko sortu dituzte.

Ariztondok azaldu zuenez, Euskara Biziberritze Planak helburu estrategikotzat du euskararen transmisioa jorratzea; halaber, euskararen erabilera eta kalitatea areagotzea da planaren xedea eta ildo horri segitzen dio.

Solasean eta jolasean ikas-

materialaren bidez, hizkuntza gaitasuna «bide atsegina-gotzatez» lantzea lortu nahi dute.

Materialetan lantzen diren gaiak errealitatearekin lotuta daude. Oinarria euskararen erabilpen komunikatiboa izan da. Hala, helburuak lortzeko eginkizun jakin bat proposatzen zaie ikasleei, haiek egin dezaten azken produktua, adibidez, ipuin emanaldi bat ematea haurrei.

Bagera elkarteak hizkuntz normalizaziorako plana eskatu du Zinemaldirako

Aurtan ere euskarak toki urria izan duela salatzen du Donostiako elkarteak

Erredakzioa / Donostia

BAGERA Donostiako euskaltzaleen topaguneak «behar-beharrezkotzat» jo du Zinemaldian euskara normalizatzeko egitasmo bat osatzea, eta, helburu hori lortzeko, bere laguntza eskaini du.

Aurreko ekitaldiekin alderatuta zenbait urrats aurrera egin direla deritzo elkarteak, baina oraindik ere gure hizkuntzak toki «urria» duela salatzen du. Ondorio horretara iristeko, Bagera elkarteak Zinemaldiko ekitaldien jarraipen zorrotza egin du.

Hizkuntza idatziari dagokionez, ahalegina egin dela onartu du Bagerak —esku-programetan, esate baterako, euskaraz informazio berezia eman dela txalotu du—. Aldiz, Festival Zinemaldiko egunkarian gure hizkuntzan argitaratutakoak iaiztik murriztu egin direla nabarmendu du.

Hizkuntza mintzatuari dagokionez, euskara indartzeko ahalegina soilik aurkeztu ekitaldietan egin dela azaldu du Bagerak. Solasaldi eta prentsaurrekoetan euskara agurtzeko soilik erabili dela salatzen du, eta lehen-tasun osoa eman zaiela erderei.

st su
U I
I G KI
st suk U I k, In-
m l r st su,
S. L. ku l x n, h r-
k l n m n uk
r u Su s r t k
E r k ur n z z k
r k m t z r r n -
rrt un l x ku-
t t z r
H r t, t
r k t z n, 1 k
urr r n 13 n m tuk
n, tu r u Su -
s r t k E r k
ur n z z r k n z -
r kus z n k n t r s
t sku r n t
ut n r t s n f s k
n h z ur k k, h r l
z l z t n st suk
U l n.
st sum, 1 ur r n 7 n.
LK TE K.